

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Iruero

338

Abenduak 1, 2018

## Gurutz Aginagalde Bidasoa Klubeko lehendakaria berria

- 2 Irun Atzo Irun Gaur
- 3 Berri laburrak
- 4-5 Euskaraldia
- 6 Hartu hitza
- 7 Aitortzeko ezer?
- 8 Kirolak: Irun Miria Krosa
- 9 Kirolak: Gurutz Aginagalderi elkarrizketa
- 10 María Angeles Zugarramurdi abeslariari elkarrizketa
- 11 Haurren leihoa / Denborapasak
- 12 Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13 Beti Gazte: Asexora-T
- 14 Gazte Informazioa
- 15 Agenda

Argazkia: Estudio Gover

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA



**caser**  
residencial

GURE AITONA-AMONEN  
ONGIZATEA HELBURU  
Egonaldi iraunkorrak  
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM





## Emilio Navas Labiano

Idazle eta idazkaria. 1890 urtean jaio zen Irunen. Irungo historiaren ikertzaile eta dibulgatzailea izan zen. Bere bizitza profesionaleko 36 urte dedikatu zituen hiriko administrazioko langile bezala, idazkari eta Korporazioaren Ohorezko Aholku-emailea izan zen eta "Irungo Kronikalari" izendatu zuten. Valladoliden zuzenbide ikasketak egin zituen, Tokiko Administrazio Idazkari Taldeko kidea izan zen, lehenengo Oartzunen eta gero Irunen, 1924tik 1960 urtera. Sarritan "El Diario Vasco" eta "El Bidasoa" publikazioetako kolaboratzailea izan zen, 1945etatik 1962era azken hedabide honen zuzendaria izateaz gain. Garai horretan, gainera, bere obra go-rena publikatu zuen: "Irun en el siglo XX". Horren ostean, beste sei bolumen idatzirik utzi zituen, "Memorias de Gestión del Ayuntamiento de Irun" eta 1924tik 1958ko Akta Liburuetan bilduriko udal akordioen inguruko informazio zehatza biltzen da betan. Udalaren eskariari erantzunez, "Encomienda de la Orden de Mérito Civil" titulua jasi zuen. 1985 urtean hil zen 95 urte zituenean.

Irungo Udalak bere izena ipini zion Beraunen bere etxea izandakoaren parean dagoen parke bati.

**Iturria: Agustin Morate.**  
*Irun y sus gentes.*



Irungo Artxiboa. Ref: 1495

## IRUNERO

### Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena  
Ainara Berges

### Publizitatea:

Amaia Terrazas  
(amaia@irunero.eus)  
Ion Otxoa  
(ion@irunero.eus)

### Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

### Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L  
www.837comunicacion.com

### ISSN:

1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943 04 20 52

**Wegunea:** irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



## Euskarazko Produktuen Katalogoa banatu da Haur Hezkuntzako ikasleen familien artean

Irungo Euskara Arloak Haur Hezkuntzako ikasleen familien artean banatu du Euskarazko Produktuen Katalogoa. Gabonak ate joka daudela aprobetxatuz, euskarazko liburuak, musika edota jokoak erosi eta oparitzeko aukera eman nahi zaie familiei.

Katalogoaren edizio berrian 0 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen dira. Produktuak bi multzo nagusitan bereizten dira. Alde batetik, 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzako jostailu, joko, musika, DVD, filmak, APPAk, aldizkariak eta

liburuak. Bestetik, 12-16 urte bitarteko gazteentzako musika, aldizkari, komiki eta liburuak aipatzen dira. Hortaz gain, zenbait atal adinaren arabera sailkatzen dira, produktuen topaketa errazteko.

Katalogoaren barnean produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da. Paperezko edizioaz gain, [www.katalogoa.eus](http://www.katalogoa.eus) webgunean, produktuez gain, gurasoentzako materiala, ikasmateriala, liburu elektronikoak eta bestelakoak eskura daitezke.



## V. Irun Ekintzan sariak banatu ziren azaroaren 22an Ficoban

Irungo Ekintza sariaren V. edizioaren irabazleek haien sariak jaso dituzte. Azaroaren 22an Ficobako hallean egin zen sari-banaketa. Sari hauen bitartez Irungo Ekintza ekimenak enpresa irundarren berrikuntza goraipatu nahi du.

Irungo Hiri Bultzadarako arloak antolatutako norgehiagoka honetan 4 izan ziren enpresa edo pertsona ekintzaile sarituak. Railtek Ingenieria Industrial enpresak 20 langile baino gehiagoko kategoriako saria irabazi zuen, 3R3D Technology Materials 20 langile baino gutxiagoko enpresaren saria eskuratu zuen bitartean. Prim Erreabilitazio Zentroak, berriz, zerbitzuen kategorian nagusitu zen. Azkenik, Iker Velasco gazte irundarrentzat izan zen Ideia Berritzaile Onenaren saria.

Irungo Ekintza sariaren antolaketaren bitartez bertako enpresa ekintzaileen esfortzu errekonozitzea bilatzen da, berritzaileak diren proiektuak martxan jartzeko adorea saritzeko. Guztira, 15 izan dira lehiaketaren edizio berri honetara auzeratuak proiektuak. Epaimahaia, berriz, berrikuntza eta enpresen munduarekiko ezagutza zabalak dauzkaten aditu eta Irungo Ekintza sarietan ezagunak diren aurpegiak osaturik egon da. Ylenia Benito kazetariak aurkeztu zuen sari-banaketa eta ekitaldiak aurreko edizioetan sariak jaso zituzten enpresetako ordezkariak bildu zituen.





# Euskaraldia Irungo kaleetan barrena



11 egunetan zehar Irungo hiria euskararen erabilera areagotzeko ariketa kolektiboan murgilduko da. Herritar bakoitzak ariketan parte hartzeko Ahobizi edo Belarriprest rola hautatu du, norberaren berezko ingurunean euskararekiko izango duen jokaeraren arabera. Era honetan, txapa soinean eramateaz gain, herritarrek euskara ezpainetara izateko ahalegin berezi egingo dute azaroaren 23tik abenduaren 3ra.

Azaroaren 23 San Juan plazan ospatu zen Euskaraldiari ongietorria egiteko ekitaldia. Aurkezpen ekitaldian Monica Martinezek Euskara zinegotziak azaldu zuen "Irunen 3.200 lagun baino gehiagok hartu dute txapa eta euskararekiko konpromisoa". Ekitaldiaren hasieran, Unai Oartzun talde motorreko koordinatzaileak adierazi zuen, "eskerrak eman nahi dizkiogu azken hilabeteetan Irunen Euskaraldia antolatzeke lanean ibili den jende boluntarioari".

Aurten, gainera, Euskaraldiak abenduaren 3an ospatzen den Euskaren Nazioarteko Egunarekin bat egingo du. Abenduaren 3ra arte hainbat ekimen antolatu ditu Euskara arloak, Irungo Euskaraldiaren antolaketa lanean ari den lantaldea eta kolektibo sozial ezberdinekin lanean. Monica Martinezek adierazi du "txapak poltsikoetatik atera eta euskararekiko konpromisoa erakusteko ordua da". Horren haria, David Izaga euskara teknikariak azpimarratu du "hartutako konpromisoari eustea garrantzitsua izango da".



Abenduaren 23an Sareuskak antolatutako Mintzodromoarekin abiatu ziren Euskaraldiaren inguruko ekintzak eta, bertan, 200 lagun inguruk parte hartu zuten. Arratsaldean, berriz, Mugaldekoak taldearen kontzertua izan zen. Hurrengo egunetan, "Jainkoak ez dit barkatzen" dokumentala, "Black is beltza" eta "Oreina" filmak aurkeztu ziren Amaia Kultur Zentroan. Hortaz gain, euskararekin eta osasunaren munduarekin loturiko Ipar Martxa eta Aste Osasuntsuaren barnean, Kike Amunarrizek eskainitako jarduera fisikoari buruzko saioa antolatu ziren.

#### Hurrengo ekitaldiak

Euskararekiko konpromisoa Euskaraldiaren amaieraraino mantendu dadila ziurtatzeko ekitaldi zerrenda luzea prestatu da datozen egunetarako. Abenduaren 1ean Irunen Kantuz Kale Nagusian. Abenduaren 2an, berriz, Txistulari Banda, Muxikoak, Bertso saioak, "Paddington 2" familientzako filma, "TTAK!" Beatriz Egiazabalen bakarrizketa eta "Errementari" filmaren proiektzioa.

#### Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskaraldiari amaiera emateaz gain, abenduaren 3an, astelehenean, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko Gazte Mintzodromoa, Haurrentzako jolas parkea eta euskal dantzetan oinarritutako Zortziko Txikia diskofesta izango dira. Antolatutako ekintza guztien bitartez, euskaraz bizitzeko ohitura irundarren artean zabaltzea bilatzen da.


## BERTSO SAIOA

### Abenduak 2

12:00 AMAIA KZ

**Bertsolariak**

- ✓ Amets Arzallus
- ✓ Andoni Egaña
- ✓ Manu Goiogana
- ✓ Ander Lizarralde
- ✓ Eli Pagola



**Gai-jartzailea**

- ✓ Ainhoa Larretxea





**Nekane Larramendi eta Luis Urbieta:**

Oso beharrezkoa iruditzen zaigu Irunen Euskaraldia bezalako zerbait egitea. Irunen gaur egun euskarak egoera nahiko makala bizi duela esango genuke. Irunen beti kanpoko jende asko egon da eta egoera hobetzea zaila izango da. Euskararekin loturiko ekimenak antolatzea beharrezkoa da, baita horren harira antolatutako emanaldiak.



**Iban Eguzkitza:**

Nik Ahobizi rola hartu dut, urte osoan zehar euskararekiko dudan jarrera hori delako. Euskaraldia euskararen erabilerarentzako bultzada on bat izan daitekeela uste dut, hain zuzen ere, hori baita batzuek behar dutena. Irungo euskararen egoerari dagokionez zer hobetu handia dagoela uste dut. Hala ere, Ahobizi gehiegi dagoela ikusten dut, Belarriprestekin alderatuta, eta txapa gutxi ikusi ditut kalean, baina, ez Irunen bakarrik, baita Euskal Herriko beste zenbait hirietan ere.



**Blanca Amezketa:**

Belarriprest rola hautatu dut Euskaraldiaren barnean, euskaraz hitz egitea gustuko dudan zerbait delako. Euskara ikasten ari naiz oraindik, eta hizkuntza guztiz menperatzen ez dudanez, badaezpada Belarriprest izatea erabaki dut. Euskaraldia Irunen egitea beharrezkoa zela uste dut. Hala ere, duela gutxi lagunekin komentatzen nuen kalean txaparekin jende gutxi dabilela. Irunen jende askok euskara dakien arren, oso jende gutxi erabiltzen du.



**Mariani:**

Euskaraldia urte osoan zehar praktikatzen dut nik. Inoiz ez dut eduki euskaraz hitz egitekoa arazorik. Hala eta guztiz ere, Euskaraldia bezalako zerbait egitea beharrezkoa ikusten nuen, izan ere, jendeak euskaraz dakien arren, hitz egiteko lotsak gainditzen die. Euskalki ezberdinak izan arren, guztiok elkarren artean ulertzeko gai gara. Arazo nagusia Irunen euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dagoela da.



**Marilo Irastorza:**

Ni Ahobizia izango naiz Euskaraldian zehar, euskaldun jaio nintzelako eta euskaldun sentitzen naizelako. Euskaraldia Irungo hiriarentzat positiboa izango dela uste dut, izan ere, euskalduna den jende gutxi dago bertan. Gainera, euskaraz dakien jende asko dagoen arren, gutxi dira hitz egitera ausartzen direnak. Gazteek eskoletan ikasten badute ere, kalean oso gutxi entzuten da euskara. Ea egitasmo honekin jendea euskaraz hitz egitera animatzen den.

Neumáticos  
**txepetxa**



**NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,  
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK**

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99





# 4.891 irundarrek parte hartu zuten azaroan 18ko herri galdeketan



4.891 irundarrek parte hartu zuten azaroaren 18an Irunen egin zen herri galdeketan. Hirian 14 bozketa-puntu antolatu ziren irundarrei herriaren etorkizunaren inguruan erabakitze aukera emateko. Hautestontzi eta gutun-azalez gain, egunean zehar festa giroa San Juan plazatik Irungo auzo ezberdinetara zabaldu zen.

Herriaren etorkizunaren inguruan galdegiten zitzaien hitarrei kontsultan. Erantzun moduan, berriz, hiru aukeren artean bakarria hautatu behar zuten: Euskal estatu burujabe eta independentea, Estatus politiko berri bat, estatu Espainiarraren barnean, edo gaur egungo Euskal Autonomi Erkidegoa. Bozkatzaileen gehiengoak, %72,2ak, lehen aukera hautatu zuen. Bigarren aukerarik hautatuena bigarrena izan zen, botoen %18arekin eta, azkenik, hirugarren aukerak bozkatzaileen %8,5ak aukeratu zuen bakarrik.

Bozketa puntuak Irungo auzoetan zehar sakabanatu ziren, ahalik eta irundar gehienengana iristeko asmoarekin. Ia 300 boluntariok lan egin zuten Irungo herri galdeketa antolatzeko eta, haien lanari esker, 14 bozketa-leku martxan izan ziren egun osoan zehar. Hala ere, boto gehien bildu zituen bozketa-lekua San Juan plaza kokatutakoa izan zen. Hautestontziak goizeko

## “Jendea etxetik atera eta bozkatzera animatu nahi izan dugu”

Xabier Martinez de Antoñana, Hartu Hitza Irun mugimenduko ordezkaria

9:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte zabalik egon ziren. Elena Berzadik Hartu Hitza Irun mugimenduko ordezkariak bozketaren egunean adierazi zuen, “oso pozik gaude goizeko 9:00etan mundu guztia bere postuetan zegoelako eta dena bikain atera delako”.

### Jai-giroa garaile

Gure Esku Dago plataformak antolatzen dituen ekitaldi guztietan bezala, jai-giroa nagusi izan zen Irungo herri galdeketan. Jendea hautestontzietara hurbil zedin animatzeko ekintza eta emanaldiez beteriko egitaraua antolatu zuen Hartu Hitza Irun elkarteak.

Azaroaren 17an, bozketaren aurreko egunean, Asier Burguete eta Beñat Larrukertek egindako aurkezpen-ekital-

diaren ostean, umeentzako ekintzak eta kontzertuak izan ziren.

Igandean, joaldunek hiriko bozketa puntu guztietatik igaro ziren jendea bozketa-puntuetara animatzeko. Hortaz gain, bertsolariak, musika, dantza eta magia ekitaldiek eguna girotu zuten, egunaren azken partean bozketaren emaitzak ezagutu ziren arte. Xabier Martinez de Antoñanak, Hartu Hitza Irun mugimenduko ordezkariak azaldu du, “jendea etxetik atera eta bozkatzera animatu nahi izan dugu”.

### Azken fasea

Herri galdeketa prozesuari amaiera emateko, abenduaren 1ean, larunbatean zenbait ekintza egingo dira Palmera Montero gunean. Goizeko 10:15etan Irungo herri galdeketa inguruko azken bilera orokorra egingo da. Bertan, bilerara bertaratzen diren guztien artean galdeketa balorazioa egingo da, aurrera begirako urratsak zehazteaz gain.

Bestetik, 12:30etan azken prentsa agerraldi jendetsua egingo da. Xabier Martinez de Antoñanak azaldu bezala, “Hartu Hitza Irun herri galdeketa egiteko sortu zen eta, herri galdeketa egin ostean, elkarte desegingo da”.



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

**Gabonetako bazkari eta afariak, enpresa, familiako bilerak, lagunen artekoak...**

Deitu ezazu eta erreserbatu zure mahaia, disfruta dezazun arduratuko gara

[www.felixmanso.com](http://www.felixmanso.com)

Info@felixmanso.com  
Tel: 943 841 964  
Meaka auzoa 9. Irun





# Aitortzeko ezer?

2018urteko Ribera Beketako dokumental irabazlea aurkeztu dute Heidi Otaduy eta Mikel Huartek



**“Aitortzeko ezer?”** izenburua duen dokumentala aurkeztu zen azaroaren 15ean Amaia Kultur Zentroan. Heidi Otaduy eta Mikel Huarteren dokumentalak 2018ko Ribera Beketan saritua izan zen. Dokumentalak Irungo gizartean aldaketa handiak eragin zituen gertaeraren ondorioak aztertzen ditu 25 urte geroago.

1993 urteko urtarrilaren 1ean Europar Batasuneko aduanak eta barne-mugak ezabatu ziren. Heidi Otaduy dokumentaleko egileak azaldu duenez, “data oharkabeen pasa ez zedin muga zabalpena ospatzeko zerbait egin nahi genuen”. Irailaren 22an antolatutako Ribera Azoka ikusi ahal izan zen dokumental irabazlearen aurrerapen txikia. “Aitortzeko ezer?” tituluaren barnean muga gurutzatzerakoan egiten zen galdera gogora ekarri nahi izan dute dokumentalaren egileek.

Dokumentala hiru zati nagusitan banatzen da. Lehen zatian, Aduanen amaiera ezagutu eta itxieraren ondorioak zuzenean jasan zituzten pertsonak elkarrizketatu dituzte egileek. Bigarren zatian, 1993 urtean jaio eta Aduanak ezagutu ez zituzten gazteak elkarrizketatu dituzte, egun gazteek gaiaren inguruan duten ikuspuntua biltzeko. Azkenik, Margaret Bullen, EHUko antropologoa, eta Roberto Aramago, CSICeko filosofoaren bitartez, muga etorkizunaren inguruko analisia egin dute.

**“Data oharkabeen pasa ez zedin muga zabalpena ospatzeko zerbait egin nahi genuen”**

Heidi Otaduy, dokumentalaren egilea

**“Mugaz gaindiko errealitatearen adierazleak diren adibide zoragarriak bildu ditugu dokumentalean”**

Mikel Huarte, dokumentalaren egilea

Guztira, 17 pertsonen lekukotzak bildu dituzte euskara, gaztelera, ingeles eta frantsesez. Ekaina eta abuztuan zehar egindako 13 grabaketa orduak 52 minutuko iraupena duen dokumentalera laburtu dituzte.

Elkarrizketak Bidasoa ibaiaren inguruko pasai ezberdinetan grabatu ziren: Endarlaza, Kanetako Portua, Biriatou, Behobia edo Santiago Zubian, besteak beste. Mikel Huarte dokumentaleko egileak azaldu duenez, “mugaz gaindiko errealitatearen adierazleak diren adibide zoragarriak bildu ditugu dokumentalean”.

#### Ribera Bekak

Ribera programa duela hiru urte jaio zen Irungo Kultura arloan, arte garaikidea era berritzailean bultzatzeko helburuarekin. Juncal Eizaguirre Kultur arloko ordezkariak adierazi du, “arteaz gertatzen diren erreminta batean bihurtu da programa honen bitartez”. Ribera Azokan memoria historikoa, muga eta Bidasoa ibaiaren kontzeptuen inguruan gogoeta egiten da.

Ribera bekak bi bikote irabazle osatzen dira. Heidi Otaduy eta Mikel Huarteren proiektuak gain, Iraitx Agirre eta Ivan Gomezek osatutako taldea izan da 2018 urtean saritutako beste proiektua. Bigarren bikote honek Faisai Uhartearen inguruko proiektua garatzen ari da eta laster ezagutu ahalko dira bere emaitzak.





# Irun Hiria Krosak 50. urteurrena ospatu du

Ainhoa Sanz eta Aitor Etxebarria izan dira lasterketako garaileak



**Irun Hiria Krosak 50. urteurrena ospatu du. Data berezia ospatzeko Bidasoa Atletiko Taldeak, azaroaren 18ko lasterketaz gain, omenaldi ekitaldi berezia antolatu zuen lasterketaren aurreko egunean Irungo Udaletxean. Ekitaldian krosa irabazi duten kirolari guztiak eta bertan parte hartutako maila olinpikoko kirolariak omendu zituzten.**

Ainhoa Sanz izan zen emakumezkoen kategorian krosetako garailea 20:39ko denbora lortu ostean. Bigarren eta hirugarren postuak, berriz, Maria Vicente (21:04) eta Mainer Gaztañagarentzat (21:10). Gizonezkoen sailkapenean Aitor Etxebarria eskuratu zuen lehen postua 26:37ko denborarekin, Kamel Zadin (26:47) bigarren eta Beñat Atarratze (26:51) hirugarren izan zirelarik.

Txingudi Ikastola eta Jaizubia Zalditegiko zelaietan eskualdeko benjamin eta beterranoen kategoria guztietako kirolarientzako irteerak antolatu ziren goizeko 10:00etatik 13:00etara. Lasterketaren ostean, Udaletxeko ekitaldian omenduak izan ziren Mariano Haro, Jose Luis Gonzala-

lez, Carmen Valero eta Rene Jourdan atleta olinpikoei 50. Irun Hiria Krosaren sari banaketan parte hartu zuten.

**“50 urteetan zehar krosa antolatzen lagundu gaituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu”**

Josema Soto, BATEko lehendakaria

Krosaren urrezko ezteiak ospatzeaz gain, izen-emate errekor berria lortu zen, izan ere, 800 lasterkaririk baino gehiagok izena eman zuten azaroaren 18ko lasterketan. Horrela, Gipuzkoako kros denboraldia



martxan ipini duen egutegiko lehen lasterketa izan zen Irun Hiria Krosa, urtero moduan. Josema Soto, BATEko lehendakariak, adierazi du, “50 urteetan zehar krosa antolatzen lagundu gaituzten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu”.

#### Krosaren urrezko ezteiak

Azaroaren 17an arratsaldeko 18:00etan Irungo Udaletxeko kapitulu-gelan egin zen omenaldi ekitaldia. Jose Antonio Santano Irungo alkateak adierazi du, “Irun Hiria Krosa atletismoa eta hiriko historia sinonimoa da”. Ekitaldian 50 urte horietan krosa irabazi duten emakume eta gizonezko guztientzako oroigarriak banatu zituen Bidasoa Atletiko Taldeak, irabazleen garaipenak erreparasatzen zituen bideoa ikusi ostean. Hortaz gain, Udalak krosa irabazi zuten kirolari olinpikoei aipamen berezia egin zien. Kirolariez gain, Joseba Sarriegiri omenaldi berezia egin zioten klubaren barnean eta atletismoaren munduan egindako ekarpen handia eskertzeko.

Irun Hiria Krosa Nazioarteko maila izateko asmoarekin jaio zen krosa izan zen,

**“50 urtetako historia osatu duten atletei omenaldia egin nahi diegu”**

Joseba Sarriegi, Bidasoa Atletiko Taldeko fundatzailea

baina, denborarekin egokitu zaizkion egoeretara moldatuz joan da. Lehen hamarkadan olinpikoak eta nazioarteko maila zeukaten edo izango zutenek parte hartu zuten frogetan, baina, profesionalizazioa, managerren sorrera eta Afrikako atleta handien agerpenak guztiz aldatu zuen atletismoaren espezializazio honen egoera. Aldaketak, arazo izan beharrean, aukeretan bihurtu ziren atleten balore propioak promozionatzeko. Joseba Sarriegiren hitzetan, “50 urtetako historia osatu duten atletei omenaldia egin nahi diegu”.

la  
BIO  
teka

## Denda ekologikoa

Garapuz konposaketaren analisiak

HEYQNUK - Fruitu lehor-krema

Aukeraturako produktu ekologikoa

Produktu onenekin batera zure ECOBOXa hilabetero jaso ezazu

bioteka.es



Beraketa 15, Irun



943 63 04 68



# Gurutz Aginagalde izango da Bidasoa klubeko lehendakari berria



Argazkia: Estudio Gover

Gurutz Aginagaldereen hautagaitza garaile izan zen azaroaren 24ean Artalekun ospatutako klubaren presidentziarako hauteskundeetan. Aginagaldereen taldeak 468 botoei esker lekukoa hartuko dio Jose Angel Soduperen agintaldiari, Iñaki Emaldiren hautagaitzak 256 boto jaso zituen bitartean.

Klubeko 856 bazkidek izan zuten boto-eskubidea eta parte hartzea altua izan zen, izan ere, bazkideen %85ak haien botoa eman baitzuen. Era berean, egun garrantzitsua izan zen Bidasoa taldearentzat, etxean jokaturako partiduran 27 puntu eskuratu baitzituen Bada-Huesca taldearen 21 puntuen aurrean.

**Nolakoak izan dira azken hauteskunde kanpainako hilabeteak?**

Gogor xamarrak izan dira. Logroñoko taldearekin azken partiduak jolasten ibili naizen bitartean, Bidasoarekin loturiko bilera ezberdinak egin behar izan baitituz.

**Zaila izan da Logroño taldeari agur esan behar izatea?**

Agurra gogorragoa izango zela espero nuen. Azkeneko partidak arraroak izan dira, urte erdian taldea utzi behar izan dudalako. Hala ere, jende askoren maitasuna eta babesa jaso dut.

**“Partiduaren bukaerako gola gelditu ahal izatea amets bat izan zen”**

**“Izandako partaidetza altuari garrantzi handia ematen diogu”**

**Logroño taldearekin jokaturako azken partidua berezia izan zen?**

Azken hilabeteetan nahi haina jokatu ez dudan arren, azken partiduan dezente jokatzeko aukera izan dut eta partidua bukaerako gola gelditu ahal izatea amets bat izan zen.

**Azken hauteskundeak uste baino lehenago ospatu ziren ezta?**

Ez zen gure erabakia izan, presidenteak erabaki behar zuten eta, beste hautagaitzarekin data adostea ezinezkoa

izan zenez, presidenteak hartutako erabakia onartu behar izan genuen.

**Nola bizi izan zenuen hauteskundearen eguna?**

Nahiko urduri bozkatzeko aukera iritsi zen arte, goizean aurkeztu beharreko dokumentuak direla eta. Partidua hasi zenean jokoan kontzentratu nintzen. Partiduaren amaierara arte ez nuen emaitzaren berri izan, beraz ez nuen jokalaria ohi bezala nostalgia sentitzeko aukerarik izan, segituan jendearen zoriontasun mezuak jaso nituelako.

**Pozik zaudete lortutako emaitzarekin?**

Bai, klubeko bazkideen %85ak bozkatu zuen eta izandako partaidetza altuari garrantzi handia ematen diogu.

**Jada lanean hasi zarete?**

Bai, abenduko lehen astera arte ezin dezakegu botere al daketa egin, baina, orain arte zeudenek utzi egin dutenez, kluba eteten ez dadin lanean hasi gara.

**Zeintzuk izango dira kargu berri honetan emango dituzuen lehen pausuak?**

Lehen urratsa, zalantzarik gabe, klubean sartu eta egoera zein den ikustea izango da. Egoera ekonomikoa zein den baloratu nahi dugu klubaren benetako errealitatea zein den ezagutzeko.



Maria Angeles Zugarramudi, musikagile eta abeslaria:

## “Sormenak bultzatu nau jaio gabeko abestiak konposatzera”



Argazkia: Estudio Gover

**Maria Angeles Zugarramurdi esperientzia zabala du musikagintza eta olerkien munduan. Esperientzia sentimenduekin elkartu ostean “Zilbor-hestetik bihotz-hestera” izeneko bere lehen disko bilduma sortu du. Bizitzaren sorrera eta haurren hazkundeko lehen urteak landu ditu disko bikoitza osatzen dituen 36 kantuekin.**

**Zergatik erabaki zuen disko bat kale-ratu nahi zenuela?**

Pertsona guztiek ahalmen ezberdin bat dugun aldetik, nik konposatzeko ahalmena dut. Diskoaren abestien letrak %100ean nik konposatu ditut eta nik neuk abesten ditut. Inspirazio puntua duela 9 urte inguru iritsi zitzaidan, nire alabak haurdun zegoela iragarri zidanean.

**“Pertsona guztiek ahalmen ezberdin bat dugun aldetik, nik konposatzeko ahalmena dut”**

**Erraza izan da diskoa kaleratzeko lana?**

Nire kontu lan egin dudanez kostu guztiak nire gain hartu ditut. Proiektu oso luzea da, haur baten sorreratik heldurainoko prozesua biltzea baitu helburu. Abesbatzetan eta taldean abesteko ohitura dudan arren, bakarka aritzea gogorra eta arraroa izan da.

**Zur ingurukoen babesa jaso duzu?**

Familia eta ingurukoen animoak behar izan ditut eta asko eskertzen ditut, baina, bereziki eskerrak eman nahiko nizkieke Idoia Genua eta Ainara Mayari.

**Olerkigintza eta musikagintzan duzun esperientzia baliagarria izan zaizu?**

Jende askok aurkakoa uste duen arren, nire ustez ez da solfeorik jakin behar abestiak konposatzeko. Sormenak bultzatu nau jaio gabeko abestiak konposatzera. Letra idazteko, ordea, gaia menperatzea beharrezkoa da, melodiakin elkartu ahal izateko.

**Zer bildu duzu proiektuaren lehen fase honetan?**

13 abestiz osatutako aurkezpen CD bat prestatu dut, baina, Durangoko azokakoa 36 abestiz osatutako disko bikoitza izango da. Ama eta amatxi izateaz gain, hurrez

inguratuta egon naiz nire bizitzan zehar eta bizipen positiboak biltzen saiatu naiz disko honetan. Hala ere, diskoan bildutakoak ez dira nire bizipenak bakarrik, edozein identifikatuta senti daiteke.

**“Diskoan bildutakoak ez dira nire bizipenak bakarrik, edozein identifikatuta senti daiteke”**

**Zein arlotan espero duzu baliagarria izatea zure lana?**

Gai aski zabala denez, arlo askotan erabilgarri izatea espero dut. Haur edo nerabeekin lotura duen edonorentzat eta, orokorrean, gizarte guztiarentzat.

**Zenbat denbora eskaini diozu lan honen sorrerari?**

Ezinezkoa da ordu guztiak zenbatzea, izan ere, konposatzea inspirazioaren arabera egiten da eta hori egun batetik bestera al-

datzen da. Guztira 9 urte behar izan ditut diskoa sortzeko, tarteka lan egin dudalako, inspiraziozko momentu libreak aprobetxatuz.

**Non eskuratu daiteke diskoa?**

Kaleratzen dudan lehen produktuk fisikoa izanik eta oraindik diskoetxeekin hitz egin ez dudanez, momentuz, ez da dendetan salgai egongo. Bestalde, burokrazia handia eskatzen duen prozesua denez, azoketan edo nirekin kontaktuan jarriz lortu ahal da.

**Zein gai jorratu nahiko zenituzke zure hurrengo lanetan?**

Nire lana zabaltzen jarraitzea gustatuko litzaidake, orain ereindako haziaren fruituak etorkizunean jaso ahal izateko. Hurrengo lanetan ume eta gazteen faseak lantzen jarraitu nahiko nuke.

Diskoa sortzeko prozesuan ikasitako guztiaren ostean, bi gauza errebindikatu nahiko nituzke. Alde batetik, haurren heziketarako erabiltzen diren materialek %21eko BEZa ordaindu behar izatea bigarrena iruditzen zaidala. Bestetik, CD baten sorrerak zelako lan handia duen ikusi dut eta jendeari gogorarazi nahiko nioke musika pirateatuz gero, lan hori ordaindu gabe gelditzen dela.



# Lekaenea - LH1



# Denborapasak

## Barazkiak

A B U Q D I E R A V S A M S E I Q  
 V H A R Q O E Q U E U G T X E P  
 Y Y V R A Q E C E L E Q U F A Z U  
 I Q I N A Z Z M W H G T H E Y O G  
 I U N D D T A C I Y O O J Y X Z O  
 Q K X U Y C X I L O O T P Y W K X  
 B V N N D G I U E T I W Q X S G E  
 R O K U E Y O Z R O B G I Y K O O  
 E D N I T O Q Q O E I X Z E I Q N O  
 A Z A L O R E A C X A K O L R R S  
 M X U O O H T L P H E F L A K E S  
 I E J Q A Y I E A O W A B R A E T  
 U U N O A T P K C M R E A Y A Y Y  
 A U C Y V D U A U X C R A U A K A  
 D F C U A M L G E C Z I U C U M T  
 D C D Y G Z A N Y E M P L S Y Z W  
 K C Y O I E P Q B A B O B E D N X

		5	4	6	9	3		
					3		4	2
			8		2			
	9			2				
4				8	7		6	9
		7	6		4	5		
	7		2	3				
		4			6	8		
		3	5		1			7

Leka, uraza, azalorea, tipula, baratxuri, ilar



# Euskaraz, Irunen barrena


## Aurten gure erriyan

Aurten gure erriyan  
pobriak arlote  
Pasaian ere ala  
direla diyote.  
Gaintxuisketa ortan ere  
zeregin badute,  
alfer demoniñuak  
txupatzen gattuzte

Irungo S.R.A. andereari jaso (1959ko uda).  
Anaia Juan Inaziori ikasi zion gaztetan.  
(El Bidasoa, 1959-X-3)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga  
Euskaraz, Irunen barrena

## Eguzkitza DBH2



# bideosare

*Bideoak zure erara!*



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com





# Raquel Calvo da Asexora-T zerbitzuko hezitzaile eta sexologo berria

Raquel Calvo da Asexora-T sexu-hezkuntza zerbitzuko hezitzaile eta sexologo berria. Martindozenea Gaztelekuan hilabete bakoitzeko azken ostegunean 17:00etatik 20:00etara aholkularitza zerbitzua kudeatzen du gazteen galderak erantzun edo bitxikeriak konpartitzeko.

## Nola jasotzen dituzue gazteen kontsultak?

Zerbitzuan lanean nagoenetik kontsulta gehienak era presentzian egiten dituzte gazteek.

## Zein adin-tartekoak izan ohi dira kontsultak egin dituzten gazteak?

11 eta 17 urte bitarte izan ohi dituzte Martindozenea Gaztelekuko zerbitzuko erabiltzaile gehienek. Bestetik, 18 eta 25 urte arteko erabiltzaileak dauzkagu ere, nahiz eta adin-tarte horretako gazteen kontsulta gutxiago egiten dituzten.

## Zeintzuk dira gehien errepikatzen diren galderak?

Gazteen artean lehen muxua eta lehen harremanen inguruko zalantzak dira ohikoak, anatomia eta genitalen kanpoko atalen inguruko galderez gain. Helduagoek, berriz, antisorgailuen inguruko zalantzak izan ohi dituzte batez ere, baina, aniztasun sexualarekin loturiko kontzeptuak bereizteko zailtasun handiak daukela antzematen dugu.

## Nondik jasotzen dute egungo gazteek sexualitatearekin loturiko informazioa?

Internet edo telebistaren bitartez, batez ere. Interneten kasuan, gazte askok por-

nografia erabiltzen dute informazio iturri moduan.

## Zein lotura dago sare sozial eta sexu-hezkuntzaren artean?

Informazio oso ona dagoen arren, kasu gehienetan, arreta deitzen dien informazioa morboarekin loturik egon ohi da eta, ondorioz, osasungarria izan daitekeen informaziotik urruntzen dira askotan.

## Gizartean sexualitatearen gaiaren inguruko tabua desagertu da?

Ez, sare sozialak eta interneti esker informazio gehiago dagoen arren, sexu harremanen inguruan era naturalean hitz egiteko tabuak hor jarraitzen du.

## Azkenaldian izandako HIESa kasuetan gorakada desinformazioarekin loturik dago?

Gaixotasunaren inguruko informazio egokia jasotzen ez delako izan daitekeela uste dut. Hau da, guri ere gerta dakigukeela ulertzen ez dugun arte ez da geldituko. Deigarria da Euskadin gonorra eta sifilis kasuak seikoiztu direla ikustea.

## Tailer berezituak ere antolatzen dituzue ez?

Tailerren bitartez sexu-hezkuntzaren inguruko zertzelada ezberdinak lantzen saiatzen gara, era informagoan, eta joko ezberdinen bitartez gaia kalera ateratzen dugu. Azaroaren 16ean 18-25 urte bitarteko gazteei informazioa era dibertigarrian emateko tailer bat antolatu genuen eta abenduan, berriz, nerabeen gurasoei zuzenduriko tailer bat antolatzeko asmoa dugu.



**“Aniztasun sexualarekin loturiko kontzeptuak bereizteko zailtasun handiak daudela antzematen dugu”**

**“Deigarria da Euskadin gonorra eta sifilis kasuak seikoiztu direla ikustea”**



Fernando Vergara  
argazkilaria

Letxunbarro hiribidea 100,2º  
20305 Irun  
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com  
www.fotogoverbodas.com  
info@fotogover.com







- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Web gunean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## PINerako begiraleak !!!!!

Lan egin nahi al duzu Eguberrietan???

Eguberri hauetan FICOBako PINean lan egin nahi baduzu...

Bidali curriculuma:  
[eventos@gipuzkoaeventos.com](mailto:eventos@gipuzkoaeventos.com)  
 helbidera, gaiaren eremuan PIN FICOBABA BEGIRALEAK jarrita.

## Etorri eta informazioa zure unibertsiatari buruz!!!!

**UPV/EHUri buruzko Informazio-jardunaldiak Gipuzkoan**

Ekiltaldia elebiduna izango da

**Noiz:** 2018ko abenduaren 11n

**Ordua:** 18:30etan

**Non:** AMAIA Kultur Zentroa (López Berra, z/g)

**Norentzat:**

- Batxilergoko eta Goi Mailako heziketa Zikloetan matrikulatutako ikasleentzat eta beren gurasoentzat.

- 25 et 45 urtetik gorakoentzako sarbide-probak egingo dituzten ikasleentzat, eta lan arloko esperientzia egiaztatua izanda sarbidea.

- Orientazioan edo irakaskuntzan diharduten eta UPV/EHAUri buruzko infor-

mazio orokorra jaso nahi duten guztiarentzat.

**Bertaratzea:**

Jardunaldietan parte hartzeko ez da beharrezkoa izango izena ematea; beraz, dokumentu honetan jasotako eta aurreikusitako ezein saiotara joan zaitezke.

**Informazio gehiago:**

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza - (Julianategi. Arriola pasealekua, 2 - 20018 Donostia)

Telefonoa: 943 018 529

Posta elektronikoa: [vicar.campus-gipuzkoa@ehu.eus](mailto:vicar.campus-gipuzkoa@ehu.eus)

Webgunea: [www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

Badatoz azterketak, eta CBA Kultur Guneako liburutegiko ikasketa gelak ordu gehiago egongo dira zabalik.

## Azterketak !!! IKASKETA GELAK ordu gehiago egongo dira zabalik

**Data:** abenduaren 15etik otsailaren 10era

**Ordutegia:**

- Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 20:00

- Larunbatetan: 9:00 - 13:00 eta 15:00 - 20:00

- Igandeetan: 9:00 - 13:00

## IGazteren Buletin Elektronikoa

Izena eman ezazu IGazteren buletinera, eta ostiralero jasoko duzu zure postan!!!

Geldeguzu!!! Interesatzen zaizun guztia zure eskura!!!

Informazio gehiago: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)



### MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA

Etxe bikoitza desberdina da, kontatu izuguztu nolako den zurla!

Higiezinen zerbitzuen kontzeptu berri bat surkatzeko dizuegu, etxebizitzaren etorkizun oraindik dagoena erakazten surkatzeko hobetuta egiteko.

BIZI EKIAK saldu nahi ditugu, ez soilik metro korantak.

Inmobiliaria Urtzi Golegana eta Encarni Martinez Home Staging enpresak elkarrekin, gure erakundeak, esperientziak eta gehien bat, gauzak ondo egiteko gogoa uzten duz. etxebizitzaren salmenta / alokatze zerbitzu integroa eskaintzeko Home Staging teknika. Etxebizitzak saltzeko modu eraginkorrena baina, erabiltzen aza-kan jartzen garelako.

<https://www.inmobiliariartzigolegana.com/>

661875785  
(Urtzi)

656748202  
(Encarni)

Inongo kasuaren aldetik human surki gaitzakazu, Jose Ramon Agirretxe Alkate Jauna 1 plazan.

<https://encarnimartinez.es/>



# Abenduak

**3**

## “Indarkeriaren mila aurpegi: ahozko indarkeria”

**Zer:** Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren programaren barruko tailerra.

**Non:** Uxo Elkartea (Gipuzkoa hiribidea, 12 behea).

**Ordua:** 17:00etan.

**Prezioa:** Doan.

**Hizlaria:** Lorena Pidal, psikologoa.

**4**

## Eguberriko argien piztea

**Zer:** Eguberriko argiak pizteko ekitaldia.

**Non:** San Juan Harri plazan.

**Ordua:** 18:30etan.

**Oharra:** Argiak pizturik mantenduko dira abenduaren 4tik urtarrilaren 6ra arte.

**6tik 9ra**

## Euskal Kostaldeko Gabonetako Azoka

**Zer:** Gabonetako erosketak egin ahal izateko familia osoarentzako prestaturiko azoka.

**Non:** Ficoban.

**Ordutegia:** Ostegun, ostiral eta igandean 11:00etatik 20:00etara. Larunbatean, berriz, 11:00etatik 21:00etara.

**Prezioa:** Zehaztu gabe.

**Oharra:** Haurrentzako entretenitzeko ekintzak antolatuko dira.

**8ra arte**

## “Bidaso aldeko argi-itzalak”

**Zer:** Rudy margolari nafarraren 16 obren erakusketa.

**Non:** Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoa.

**Ordutegia:** Ostegunetik larunbatera 19:00etatik aurrera.

**Prezioa:** Doako sarrera.

**9**

## Kontzertua Sigma Project & Cecilia Bercovich

**Zer:** Sigma Project (Alberto Chaves, Andres Gomis, Angel Soria, Josexo Silguero) eta Cecilia Bercovichen eskutik kontzertua.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Prezioa:** 7,55 euro.

**Sarrerren salmenta:** Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan edo Amaia Kultur Zentroko leihatilatan.

**15era arte**

## Azoka solidarioa

**Zer:** DOA Gobernu Kanpoko Erakundearen azoka solidarioa.

**Non:** Luis Mariano, 15.

**Ordutegia:** Goizeko 10:00etatik 13:00etara eta, arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara.

**Oharra:** Azokan bildutako diru guztia duela 3 urte Bolivian abiatutako proiektuan laguntzeko erabiliko da.

### Denborapasen emaitzak

A	B	U	Q	D	I	E	R	A	V	S	A	M	S	E	I	Q
V	H	A	R	O	C	E	Q	U	E	U	G	T	X	E	X	P
Y	Y	V	R	A	O	E	C	E	L	E	Q	U	F	A	Z	U
I	Q	I	N	A	Z	Z	M	W	H	G	T	H	E	Y	O	G
I	U	N	D	D	T	A	C	I	Y	O	O	J	Y	X	Z	O
Q	K	X	U	Y	C	X	I	L	O	O	T	P	Y	W	K	X
B	V	N	N	D	G	I	J	E	T	I	W	Q	X	S	G	E
R	O	K	U	E	Y	O	Z	R	O	B	G	I	Y	K	O	O
E	D	N	I	T	O	Q	O	E	J	X	Z	E	T	Q	N	O
A	Z	A	L	O	R	E	A	C	X	A	K	O	L	R	R	S
M	X	U	O	O	H	T	L	P	H	E	F	L	A	K	E	S
I	E	J	Q	A	Y	I	E	A	O	W	A	B	R	A	E	T
U	U	N	O	A	T	P	K	C	M	R	E	A	Y	A	Y	Y
A	U	C	Y	V	D	U	A	U	X	O	R	A	U	A	K	A
D	F	C	U	A	M	L	G	E	C	Z	I	U	C	U	M	T
D	C	D	Y	G	Z	A	N	Y	E	M	P	L	S	Y	Z	W
K	O	Y	O	I	E	P	Q	B	A	B	O	B	E	D	N	X

7	2	5	4	6	9	3	8	1
8	8	1	7	5	3	6	4	2
3	4	6	8	1	2	9	7	5
6	9	8	1	2	6	7	3	4
4	5	2	3	8	7	1	6	9
1	3	7	6	9	4	8	2	8
5	7	0	2	3	0	4	1	0
2	1	4	0	7	8	8	6	3
0	6	3	6	4	1	2	0	7

**Folder**

Paper-dendarik merkeena  
**ZIURTATUTA**

Kolon ibilbidea, 2  
(atzeko aldea)  
www.kopiar.net  
kopiarf@kopiar.net  
943 63 93 01



13.  
edizioa!



# euskal kostaldeko gabonetako azoka

abenduak 6 - 7 - 8 - 9. FICOBA. Irun

Osteguna jueves: 11:00 - 20:00 / Ostirala viernes: 11:00 - 20:00  
Larunbata sábado: 11:00 - 21:00 / Igandea domingo: 11:00 - 20:00



**KRUZERO BAT  
OPARITZEN  
DUGU!**



**ETA EROSKETA TXEKE,  
GABONETAKO LOTE ETA  
SASKIEN ZOZKETAK ORDURO!**



Irudi informatiboak, ez kontratuzkoak / Zozketen arauak: expo.ficoba.org



  #FeriaNavidad2018

[expo.ficoba.org](http://expo.ficoba.org)



Antolatzaile



Avda. Ibarraide, 43  
20302 Irun-Gipuzkoa  
+34 943 66 77 88  
[www.ficoba.org](http://www.ficoba.org)

Babesleak

Udakoak  
Feria Abundia  
Udakoak Foral  
de Gipuzkoa



CRAIN  
GIPUZKOA

